



PANTAILA TXIKIAN

Gaizka IZAGIRRE BROSA

Errealitatearekin eta fikzioarekin jolasean

Hiztegiaren arabera, fikzioa «irudimenaren edo asmamenaren sorkaria» da. Errealitatea, aldiz, «errealitatearen nolakotasuna; gauza errealen multzoa». Biak nahastearen kontzeptua zineman behin baino gehiagotan ikusi dugun arren, pantaila txikian nahiko berria dela esango nuke, eta istorioak azaltzeko tresna interesgarria eta nahi berritzailea iruditzen zait. Argitu nahi dut, bestalde, ez naizela dokumental faltsu edo *Mockumentary* delako

Azken urteotan ugaritu egin dira errealitateko kontakizunak pantailara eraman dituzten fikziozko lanak. Errealitateak elikatzen du fikzioa, ala fikzioak errealitatea? «Dahmer kasua eta benetako gertaeretan oinarritzen diren telesailen booma» (2022/10/27) izeneko erreportajearen hausnartu nuen horren inguruan; beraz, gaur, beste aldaera bati buruz arituko naiz: telesail berean errealitatea eta fikzioa nahastearen sortzen ari diren produktu bitxi eta oso interesgarriak izango ditut hizpide.

kontzeptuaz ari. Horietan, %100 fikziozkoa den istorio bat jorratu arren, dokumentalaren formaz baliatzen baitira; “This is Spinal Tap”, “The Blair Witch Project”, “What We Do in the Sha-

Azpian, «Jury Duty», eta alboko orrian, «How To with John Wilson» eta «The Rehearsal».

dows”, “The Office” edo “Parks and Recreation” izan daitezke horien adibide. Errealitatearekin eta fikzioarekin “jolasean” aritu diren adibide nabarmenenak honakoak dira:

Jury Duty

PRIME VIDEO

“The Office” telesail zoragarriaren umorea eta estiloa gogoko badituzu, eta “The Truman Show”-ek planteatzen duen gatazka liluragarria iruditzen bazaizu, adi aurtengo proposamen honi. Errealitatearen eta fikzioaren arteko hibrido bat da “Jury Duty”, eta planteatzen den jolasa, eta batez ere, horrekin lortzen den emaitza, zoragarria iruditzen zait. Dokumental



formatuan, epaiketa bateko epaimahaikide jakin batzuen eguneroko lana erakusten du. Baina alde handi batekin: dena da faltsua; epailea, epaiketa bera, testiguak, abokatuak eta epaimahaikideak.

Guztiak dira aktoreak. Tira, guztiak ez: 12 epaimahaikide horietatik 11, zehazkiago esanda. Kide horietako batek, Ronald Gladden-ek, ez daki bizitzen ari den guztia gezurrezkoa dela, eta zehatz-mehatz planifikatua dagoen istorio baten barruan murgilduta dagoela. Ez da *reality show* bat, ezta dokumental bat ere. Serie honetan, pertsonaietako batek ez daki fikziozko telesail baten barruan dagoela; “The Office”-en pertsonaia guztiak aktoreak balira bezala, Michael Scott izan ezik, adibidez. Los Angelesen girotuta dago seriea, eta 17 egunez filmatu zen.

Inprobisazioan esperientzia duten hainbat aktoreri esker, tartean James Marsden ezaguna ere ageri da, “esperimentua” egun horietan guztietan ezkutatu behar izan zioten Gladden-i. Zeure aurpegian irribarre erraldoi bat marrazteko gai izango den proposamen originala da, freskoa, atsegina, eta oso dibertigarria. Altxor txiki bat iruditu zait, 2023ko onenen nire zerrendan egongo den izenburua.

How To with John Wilson

HBO MAX

Hirugarren denboraldia estreinatu berritan, irmotasunez gomendatzen dizuet telesail hau. Surrealista, dibertigarria, berezia, tristea, bitxia eta, batez ere, sailkae-



zina. Bizitza modernoari buruzko umorezko tutorial gisa planteatuta, kamera hartu, eta New York hirian milaka eta milaka ordu grabatu ditu John Wilson dokumentalista ia ezezagunak.

Lehen pertsonan azalduta, giza izaera oinarritzkoenetik xehatu nahi du telesailak, eta horrekin guztiarekin, pertsona eta egoera bitxien bilduma zoragarri bat sortzea lortu du, espontaneoki garatuz doan narratiba erabiliz. Koherentzia inkohherentziaren barruan iruditzen zait.

Dokumentalak samurtasunaren eta deserosotasunaren artean mugitzen den umore mota bat du ezaugarri gisa, eta atal guztiak absurdotik eta autokritika basati batetik jaiotzen dira. Soziologiaren, New Yorken edo umorerik apurtzaileenaren zalea bazara, gomendio saihetsezina.

THE REHEARSAL

HBO MAX

Ia ezinezkoa zait izenburu honi buruzko iruzkina egitea. “How to with John Wilson” zoragarriaren moduan, proposamen sailkaezina baita honakoa. Esperimentu bitxi batean parte hartzera gonbidatzen gaituen obra zoro hau irentsi ostean, aitortuko dizut ez dakidala zer demontre ikusi dudana; fikzioaren eta errealitatearen arteko mugak lausotu egiten baitira.

Ez al duzu inoiz pentsatu, bizi behar duzun egoera zail baten aurrean, egoera hori aurretik entseatu ahal izateko aukera izateaz? Hori da Nathan Fielder-ek esperimentu honekin sortu duena; pertsona jakin batzuk beren beldur handienei zuzenean

aurre egitera bultzatzen ditu. Nola? Aurretik idatzitako gidoi baten bidez, non egoera desberdinentzat irtenbide desberdinak planteatzen dizkien, eguneroko bizitzan zamatsuak bihur daitezkeen egoerei aurre egiteko.

Dokumental faltsuaren estiloan filmatuz, *docu-reality*-aren kontzeptua beste maila batera eramaten du. Ez duzu ezer ulertu ezta? Onena, zuzenean, Fielder-en erokeria honetan murgiltzea izango duzu, niri behintzat oso berritzailea eta harrigarria iruditzen zait.

DOCUMENTARY NOW!

PRIME VIDEO - AMC+

Dokumentalgintzarekiko dagoen obsesioari buruzko parodia bitxi eta satirikoa da “Documentary Now!”. “Saturday Night Live” saio ezagunaren harrobiko umorista talde batek sortu du, eta esketxen formatua erabiliz, historiako dokumental garrantzitsuenei –“The Thin Blue Line”, “Fitzcarraldo” eta “Nanook of the North”, esaterako– barre egiten dien proposamen zoroa eta surrealista da.

Atal bakoitzean istorio desberdin bat jorratzen dute, eta aktore gonbidatu ezagun ugari ikus daitezke horietan: Helen Mirren, Jack Black, Cate Blanchett, Owen Wilson eta Alexander Skarsgård, esaterako. Deigarriena da dokumental klasikoaren eskema, tonua eta egitura erabiltzen dutela; hau da, formalki benetako dokumental bat ikusten ariko bagina bezala planteatuta dago, baina jatorrizkoarekin zerikusirik ez duten edukiz hornitu dute, eta elementu horiekin



guztiekin sortzen dena oso berezia eta dibertigarria da.

Kapitulu bakoitzean erabat berrasmatzeko gaitasuna duen telesaila dela ere nabarmenduko nuke, atal bat gus-tuko ez baduzu, ikusi lasai hurrengoa, ziur harrituko zaituela eta. Jatorrizko dokumentalak ezagutzen baditu-

Goian,
«Documentary
Now!»; behean,
«Cunk on Earth».

zu, bereziki gozatuko duzu “Documentary Now!”; horrela ez bada, atal jakin batzue-tako txistiek edo erreferen-tziak agian ez dituzu guztiz ulertuko. Kapitulu batzuk besteak baino hobekien diren arren, oso proposamen origi-nala iruditzen zait.

CUNK ON EARTH

NETFLIX

Zalantza izan dut proposa-men honekin, gehiago hur-biltzen delako hasieran azal-du dizuedan *Mockumentary* kontzeptu horretara, baina baditu gaurko gaiarekin zen-bait lotura interesgarri. Be-raz, aukeratu egin dut.

Charlie Brooker ezagunak sortua, gure zibilizazioaren jatorriari buruzko lan xe-lebrea da. Xelebrea diot, umore beltz eta nahiko deserosoaz baliatzen delako horretarako, eta batez ere, Philomena Cunk protagonistak ez zai-tuelako axolagabe utziko.

Oinarrian, fikziozko istorio bat da, baina errealak diren hainbat gertaera historiko zein pertsonaia aipatzen dira tartean. Philomena Cunk, ka-zetari serio eta zorrotz mo-duan jokatzeko duen arren, guztiz kontrakoa da; inolako zentzurik ez duten galderak egiten dizkie adituei, zein baino zein zoroagoak, eta ka-merara begiratzeko plante-atzen dituen kezka eta gataz-ka filosofikoek interneteko meme batetik irtendakoak dirudite.

Internet aipatuz, bitxikeria modura, TikTok-en sekulako arrakasta izan duen telesaila da, bertatik hainbat pasarte atera eta milioika ikustaldi lortu dituelako, #CunkOnEarth traola erabiliz.